

HILDAKOEN ZERGA ITZULKETA (PFEZa ETA BESTE BATZUK)
109H EREDUA (Hildakoen zerga itzulketen eskaera: PFEZa eta beste batzuk)

OHIKO GALDERAK

GALDEREN AURKIBIDEA.

| | |
|--|----------|
| GALDEREN AURKIBIDEA..... | 1 |
| 1.- HILDAKOEN ZERGA ITZULKETEN ALDERDI OROKORRAK (PFEZa ETA BESTE BATZUK)..... | 2 |
| 1.1. Nori dagokio hildako pertsona baten zerga itzulketa jasotzea? BERRIA | 2 |
| 1.2.- Nola eskatzen da hildako pertsona baten zerga itzulketa (PFEZarena, esate baterako)? BERRIA | 3 |
| 1.3.- Hildakoen zer itzulketa eskatu behar dira 109H ereduaren bidez? BERRIA | 3 |
| Beharrezkoa al da 109H bat aurkeztea zerga itzulketa bakoitzeko? BERRIA | 3 |
| Zenbat 109H eredu aurkeztu behar ditut? BERRIA | 3 |
| Aurkeztu nuen 109H ereduak ez du jada balio, datuek indarra galdu dutelako. Nola aurkezten dut orain beste 109H eredu bat? BERRIA | 4 |
| 2.- ERRENTA KANPAINA. Hildakoen PFEZa itzultzea: aurretiko urratsak..... | 4 |
| 2.1.- Zer urrats egin behar ditut hildako baten aitorten bat aurkezteko? | 4 |
| 2.2.- Aitorpena baterakoa bada, beste zerbait egin behar al dut? | 4 |
| 2.3.- Aitorpena banaka aurkeztu bada, beste zerbait egin behar al dut? | 4 |
| 2.4.- Zer egin behar dut banakako aitorpena ordaintzeko bada? | 4 |
| 2.5.- Zer egin behar dut banakako aitorpena itzultzeko bada? BERRIA | 5 |
| 3.- Hildako pertsonen zerga itzulketak, PFEZarenak ez direnean..... | 5 |
| 3.1.- Zer beste itzulketa izan ditzake hildako pertsona batek, PFEZarenaz gain? BERRIA | 5 |
| 3.2.- Zer egin behar dut kasu horietan? BERRIA | 6 |
| 4.- 109H ereduaren aurkezpena. Modua eta epeak..... | 6 |
| 4.1.- Nola eskatzen da hildako baten zerga itzulketa (adibidez, PFEZarena)? | 6 |
| 4.2.- Non eskuratu dezaket 109H eredu?..... | 6 |
| 4.3.- Nortzuk bete behar dute 109H eredu? | 6 |
| 4.4.- Ondorio horietarako, nortzuk dira oinordekoak? | 7 |
| 4.5.- Nortzuk dira herentzia jasogabe baten ordezkariak edo testamentu ahalordea erabili gabe duten herentzia baten ordezkariak? | 7 |
| 4.6.- Zenbat 109H eredu aurkeztu behar dira? | 7 |
| 4.7.- Noiz aurkeztu behar da 109H eredu? BERRIA | 7 |
| 4.8.- Nola aurkezten da 109H eredu? | 7 |
| 4.9.- Nola eta non aurkezten da telematikoki 109H eredu? | 8 |
| 4.10.- Nola eta non aurkezten da paperezko 109H eredu ?..... | 8 |
| 5.- Nola bete 109H eredu. | 8 |

| | |
|---|-----------|
| 5.1.- Nortzuek sinatu behar dute 109H ereduak?..... | 8 |
| 5.2.- Zer gertatzen da oinordeko guztiek sinatzen ez badute? | 9 |
| 5.3.- Beharrezkoa da harremanetarako pertsona bat eta telefono zenbaki bat eta/edo posta elektronikoko helbide bat jartzea? Zertarako erabiliko da? | 9 |
| 5.4.- Zer esan nahi dute 109H ereduaren 2. ataleko «H» eta «R» laukiak? | 9 |
| 5.5.- Zer esan nahi du 109H ereduaren 4.2 ataleko «TST» laukiak? | 9 |
| 5.6.- Zer esan nahi du 109H ereduaren 4.2 ataleko «CCF» laukiak?..... | 10 |
| 5.7.- Zer esan nahi du 109H ereduaren 4.2 ataleko «D» laukiak? | 10 |
| 5.8.- Zer esan nahi du 109H ereduaren ERANSKIN-eko «MT» laukiak?..... | 10 |
| 5.9.- Zer esan nahi du 109H ereduaren ERANSKIN-eko «D» laukiak?..... | 10 |
| 6.- 109H ereduarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa | 10 |
| 6.1.- Zer dokumentazio aurkeztu behar da 109H ereduarekin batera?..... | 10 |
| 6.2.- Abonua egitea nahi den kontu korrontea(k) berriak al d(ir)a? | 10 |
| 6.3.- Gipuzkoan aurkeztu al duzu oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren aitortpena (670 ereduak)? | 11 |
| 6.4.- Herentzia onartu edo banatzeko eskritura publikorik badago?..... | 11 |
| 6.5. Ba al dago testamenturik edo oinordetza itunik? | 11 |
| 7.- Hildako baten PFEZaren itzulketaren kobrantza | 12 |
| 7.1.- Nola jasotzen da hildako baten PFEZaren itzulketa? | 12 |
| 7.2.- Eskatu al daiteke itzulketa hildakoaren kontu korrontean egitea? | 12 |
| 7.3.- Oinordeko guztiek kontu berbera erabil al dezakete, itzulketa kobratzeko? | 12 |
| 7.4.- Oinordeko bakoitzak derrigorrez kontu korronte desberdin batean kobratu behar al du? ... | 12 |
| 7.5.- Oinordeko batek baimendu al dezake beste oinordeko baten kontuan kobratzea?..... | 12 |
| 7.6.- Oinordekoek itzulketa ezkontide alargunak kobratzea nahi dute. Haren kontu korronte batean kobratu al dezakete? | 13 |
| 7.7.- Oinordeko guztiek zati berdinetan kobratzen al dute?..... | 13 |
| 7.8.- Zer gertatzen da oinordeko batek ez badu kontu korronte bat adierazten edo ez badu baimentzen bere zatia kontu korrontean sartzea? | 13 |

1.- HILDAKOEN ZERGA ITZULKETEN ALDERDI OROKORRAK (PFEZa ETA BESTE BATZUK).

1.1. Nori dagokio hildako pertsona baten zerga itzulketa jasotzea? BERRIA

Hildako pertsonen alde sortzen diren zerga itzulketak haien oinordekoei itzuli behar zaizkie.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

1.2.- Nola eskatzen da hildako pertsona baten zerga itzulketa (PFEZarena, esate baterako)? BERRIA

Eredu hau aurkeztu behar da: 109H eredu - Hildako pertsonen zerga itzulketen eskaera: PFEZa eta beste batzuk (aurrerantzean, 109H eredu).

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

1.3.- Hildakoen zer itzulketa eskatu behar dira 109H ereduaren bidez? BERRIA

PFEZaren aitortenaren itzulketa izango da kasurik ohikoena. Ikus 2. apartatua ohiko galdera hauetan.

Hala ere, badira beste itzulketa mota batzuk ere:

PFEZa ez den beste zerga bat aurkezteagatik sortzen den zerga itzulketa. Ikus 3. apartatua ohiko galdera hauetan.

Administrazioaren jarduketetatik ondorioztatzen den beste edozein zerga itzulketa (aitorpenak zuzentzeagatik, bidegabeko diru-sarrerengatik, errekurtsioak eta erreklamazioak baiesteagatik...). Ikus 3. apartatua ohiko galdera hauetan.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

Beharrezkoa al da 109H bat aurkeztea zerga itzulketa bakoitzeko? BERRIA

Ez. Printzipioz, nahikoa da 109H eredu bakarra aurkeztea. Aurkezten denetik aurrera, hildako pertsona horren izenean sortzen diren itzulketa guztiak (oraingoak zein etorkizunekoak) haren oinordekoei itzuliko zaizkie, hasieran aurkeztutako 109H eredu aintzat hartuta.

Hala ere, kasu batean beharrezkoa da beste 109H bat aurkeztea. Kasu hori gertatzen da aurkeztutako 109H ereduko datuek indarra galdu dutenean edo datu horiek aldatu nahi direnean. 109H eredu emandako kontu korrontea itxi edo aldatzea, edo 109H eredu adierazi zen jaraunsle baten heriotza gertatzea dira kasurik ohikoenak.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

Zenbat 109H eredu aurkeztu behar ditut? BERRIA

Printzipioz, nahikoa da bat aurkeztea. Hildako pertsona horren izenean geroago sortzen diren itzulketa guztiak haren oinordekoei itzuliko zaizkie, hasieran aurkeztutako 109H eredu aintzat hartuta.

Hala ere, badago kasu bat non, 109H eredu lehenago aurkeztu arren, beharrezkoa baita beste 109H eredu bat aurkeztea. Kasu hori gertatzen da aurkeztutako 109H ereduko datuek indarra galdu dutenean edo datu horiek aldatu nahi direnean. 109H eredu emandako kontu korrontea itxi edo aldatzea, edo 109H eredu adierazi zen jaraunsle baten heriotza gertatzea dira kasurik ohikoenak.

Aurkeztu nuen 109H ereduak ez du jada balio, datuek indarra galdu dutelako. Nola aurkezten dut orain beste 109H eredu bat? **BERRIA**

109H eredu eguneratu bat aurkezteko, 109H eredu arrunta aurkezteko jokatutako modu berean egin behar da. Horretarako, ikus 2.5 galdera eta ohiko galderen 4. apartatua.

109H ereduan emandako kontu korronea itxi edo aldatzea, edo 109H ereduan adierazi zen jaraunsle baten heriotza gertatzea dira kasurik ohikoenak.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

2.- ERRENTA KANPAINA. Hildakoen PFEZa itzultzea: aurretiko urratsak.

2.1.- Zer urrats egin behar ditut hildako baten aitorten bat aurkezteko?

Aitortpena normal bat aurkeztu behar da. Aitorten mekanizatua aurkeztu dezakezu, errenta mekanizatuko bulegoetan edo, bestela, aitorten telematikoa ZERGABIDEA erabilia.

Dena den, kasu batzuetan litekeena da zerbait desberdina egin behar izatea; horregatik, gure gomendioa da galdera hauek irakurtzea:

- Aitortpena batera aurkeztu baduzu, irakurri 2.2 galdera.
- Aitortpena banaka aurkeztu baduzu, irakurri 2.3 galdera.
- Aitortenaren emaitza ordaintzekoa bada, irakurri 2.4 galdera.
- Aitortenaren emaitza itzultzekoa bada, irakurri 2.5 galdera.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

2.2.- Aitortpena baterakoa bada, beste zerbait egin behar al dut?

Bai. Aitortzaile gisa alarguna jarri behar duzu, eta ezkontide gisa, berriz, hildakoa.

Horrela eginez gero, itzulketa automatikoki egingo da.

EZ da tramite gehiagorik egin beharko, eta ez da bete beharko 109H ereduak.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

2.3.- Aitortpena banaka aurkeztu bada, beste zerbait egin behar al dut?

Hori aitortenaren emaitza ordaintzekoa edo itzultzekoa izatearen mende dago:

- Aitortenaren emaitza ordaintzekoa bada, irakurri 2.4 galdera.
- Aitortenaren emaitza itzultzekoa bada, irakurri 1.5 galdera.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

2.4.- Zer egin behar dut banakako aitortpena ordaintzekoa bada?

Ezer ez. Nahikoa da aitortpena normal aurkeztea.

EZ da aurkeztu behar 109H eredia.

Hiru modutan ordaindu dezakezu:

- Ordainketa online eginez, ordainketako pasabidearen bidez.
- Ordainketa gutun bat inprimatuz. Gutun horren bidez, edozein finantza entitate laguntzailetan ordaindu ahal izango duzu, horretarako eskura dauden kanalak erabilia: leihoa, kutxazaina edo banku elektronikoa.
- Ordainketa egiten duen hirugarren batek (herederoa) duen kontu korrante bat jarritz. Horretarako, dokumentazio hau aurkeztu beharko duzu:
 - Kontu korrantearen titularra izatearen frogagiria.
 - Titular horren **baimena**, aitortpena bere kontu korrantearen bidez ordaintzeko.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

2.5.- Zer egin behar dut banakako aitortpena itzultzekoa bada? **BERRIA**

Kasua ikusi behar da.

109H eredia lehendik aurkeztu baduzu (adibidez, aurreko urteko PFEZaren aitortpenean), adierazi dezakezu itzulketa egin dadila aurkeztu zenuen 109H eredu horretan xedatutakoaren arabera. Kasu horretan, itzulketa automatikoki aginduko da, izapide gehiagorik gabe, hasieran aurkeztutako 109H eredian ageri diren oinordekoen alde.

Hala ere, badago kasu bat non, **109H eredia lehenago aurkeztu arren, beharrezkoa baita beste 109H eredu bat aurkeztea**. Kasu hori gertatzen da aurkeztutako 109H ereduko datuek indarra galdu dutenean edo datu horiek aldatu nahi direnean. 109H eredian emandako kontu korrantea itxi edo aldatzea, edo 109H eredian adierazi zen jaraunsle baten heriotza gertatzea dira kasurik ohikoenak. Kasu horietan, itzulketa geldiarazi egingo da, eta beharrezkoa izango da beste izapide bat egitea: 109H eredu eguneratu bat betetzea (ikus 4. eta hurrengo apartatuetako galderak).

Azkenik, **109H eredia ez bada lehendik aurkeztu**, zerga itzulketa geldiarazi egingo da, eta beharrezkoa izango da beste izapide bat egitea: 109H eredia betetzea (ikus 4. eta hurrengo apartatuetako galderak).

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

3.- Hildako pertsonen zerga itzulketak, PFEZarenak ez direnean.

3.1.- Zer beste itzulketa izan ditzake hildako pertsona batek, PFEZarenaz gain? **BERRIA**

PFEZaren kasuan ez ezik (hori izango da ohikoena), beste kasu batzuetan ere sor daitezke itzulketak hildako pertsonen alde. Hauek dira:

- Itzultzeko emaitza duten beste aitortpen batzuk aurkeztea (adibidez, BEZa).
- Administrazioaren jarduketa batek itzulketarako eskubidea sortzea. Ohikoenen artean, kasu hauek aipa daitezke:
 - Bidegabeko diru-sarreren itzulketa bat.
 - Lehendik aurkeztutako aitortpen baten zuzenketa.
 - Errekurtso edo erreklamazio baten aldeko ebazpena.
 - Epai judicial baten ondorioz egindako likidazioa.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

3.2.- Zer egin behar dut kasu horietan? **BERRIA**

Kasua ikusi behar da.

109H eredia lehendik aurkeztu baduzu (adibidez, PFEZaren aurreko aitorten batean), aurkeztu zenuen 109H eredian xedatutakoaren arabera egingo da itzulketa. Kasu horretan, itzulketa automatikoki aginduko da, izapide gehiagorik gabe, hasieran aurkeztutako 109H eredian ageri diren oinordekoen alde.

Hala ere, badago kasu bat non, **109H eredia lehenago aurkeztu arren, beharrezkoa baita beste 109H eredu bat aurkeztea**. Kasu hori gertatzen da aurkeztutako 109H ereduko datuek indarra galdu dutenean edo datu horiek aldatu nahi direnean. 109H eredian emandako kontu korrontea itxi edo aldatzea, edo 109H eredian adierazi zen jaraunsle baten heriotza gertatzea dira kasurik ohikoenak. Kasu horietan, itzulketa geldiarazi egingo da, eta beharrezkoa izango da beste izapide bat egitea: 109H eredu eguneratu bat betetzea (ikus 4. eta hurrengo apartatuetako galderak).

Azkenik, **109H eredia ez bada lehendik aurkeztu**, zerga itzulketa geldiarazi egingo da, eta beharrezkoa izango da beste izapide bat egitea: 109H eredia betetzea (ikus 4. eta hurrengo apartatuetako galderak).

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

4.- 109H ereduaren aurkezpena. Modua eta epeak.

4.1.- Nola eskatzen da hildako baten zerga itzulketa (adibidez, PFEZarena)?

109H eredia betez.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

4.2.- Non eskuratu dezaket 109H eredia?

109H eredia Ogasun eta Finantza Departamentuaren **web orriaren lotura honetan(109h ereduaren lotura)** eskuratu dezakezu.

Era berean, eskuragarri dago ZERGABIDEAREN aplikazioan. 109 – PFEZ Ereduaren menuaren barruan, 109H – Hildakoen PFEZ aren itzulketaren eskaera atala dago.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

4.3.- Nortzuk bete behar dute 109H eredia?

Hasiera batean, oinordeko GUZTIAK. Oinordekoak nor diren ikusteko, irakurri 4.4 galdera.

Herentziak ordezkaria edo administratzailea badu, ordezkari edo administratzaile horrek aurkeztu ahal izango du 109H eredia. Pertsona hauek nor diren ikusteko, irakurri 4.5 galdera.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

4.4.- Ondorio horietarako, nortzuk dira oinordekoak?

Oinordekotzat hartuko dira herederoak eta zati alikuotaren legatu hartzaileak.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

4.5.- Nortzuk dira herentzia jasogabe baten ordezkariak edo testamentu ahalordea erabili gabe duten herentzia baten ordezkariak?

Pertsona hauek hartzen dira ordezkartzat:

- Administratzaile (adibidez: Albazeak).
- Herentzia jasogabearen ordezkaria.
- Testamentu ahalordea erabili gabe duen herentziaren komisarioa.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

4.6.- Zenbat 109H eredia aurkeztu behar dira?

109H eredia bakar bat aurkeztu daiteke, oinordeko guztiek sinatuta.

Hainbat 109H eredia ere aurkeztu daitezke, alegia, oinordeko bakoitzeko bat.

Errazagoa delako, lehen aukera egitea gomendatzen dugu.

109H eredian tokirik ez egoteagatik oinordeko guztiak sartzen ez badira, hainbat 109H eredia aurkeztu behar dira hildako beraren PFEZaren itzulketari dagokionez.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

4.7.- Noiz aurkeztu behar da 109H eredia? **BERRIA**

Itzulketaren PFEZaren itzulketaren ondorioz sortzea izango da ohikoena. Kasu horretan, hildako pertsonaren errenta aitortzen den unean bertan aurkez daiteke 109H eredia.

Hala ere, itzulketaren jatorria PFEZa ez den beste zerga baten aitortzean badago, 109H eredia aurkez daiteke hildako pertsonaren aitortzen den unean aurkez daiteke eta gero.

Azkenik, itzulketaren beste arrazoi batengatik sortzen bada (errekurtsoak ebatziteagatik, aitortzen zuzenketagatik, etab.), itzulketarako eskubidea aitortzen den unean aurkez daiteke 109H eredia.

Aurreko kasu guztietan, posible da 109H eredia geroago ere aurkeztea (4 urtera arte gehienez).

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

4.8.- Nola aurkezten da 109H eredia?

Itzulketak PFEZean badu jatorria eta 109H eredia hildakoaren errenta aitortzearekin batera aurkezten bada, 109H eredia aitortzen den modu berean aurkeztuko da (errenta mekanizatuko bulegoetan edo ZERGABIDEAN).

Itzulketak beste zerga batean badu jatorria edo hura egiteko beste arrazoi batzuk badaude (errekurtsoak, zuzenketak), 109H eredia paperean aurkeztu ahal izango da Herritarren

Arretarako bulegoetan, baita telematikoki ere ZERGABIDEA plataforma edo Erregistro Elektronikoa erabilia.

Informazio gehiago nahi izanez gero, irakurri 4.9 eta 4.10 galderak.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

4.9.- Nola eta non aurkezten da telematikoki 109H eredia?

109H eredia bete eta eskaneatu behar da, ZERGABIDEA plataformaren bidez edo Erregistro Elektronikoz bidali ahal izateko. Ez ahaztu sinadurak 109H eredian sartzea.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

4.10.- Nola eta non aurkezten da paperezko 109H eredia ?

109H eredia bete eta toki hauetako batean aurkeztu behar da:

Departamentuaren egoitza nagusian, edo, bestela, herritarren arretarako edozein bulegotan.

| | |
|--------------------------------------|-------------------------------|
| Donostia – egoitza nagusia | Errotaburu Pasalekua 2 |
| Donostia – erdialdeko bulegoa | Okendo 20 |
| Azpeitia | Julián Elorza 3 |
| Bergara | Toki Eder 5 |
| Eibar | Arragueta 2 - behea |
| Irun | Iparralde Hiribidea 6 |
| Tolosa | San Frantzisko 45 |

ADI:

Kontuan izan behar da herritarren arretarako bulego batera joateko, beharrezkoa dela aurrez hitzordua eskatzea 943 113000 telefonora deituz edo internetez, [esteka honen bitartez](#).

[Esteka horrek hona eramango gaitu:](#)

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/HICHitzorduakWEB/inicio?locale=eu>

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

5.- Nola bete 109H eredia.

5.1.- Nortzuek sinatu behar dute 109H eredia?

Kasuen arabera:

Oinordekoek aurkezten badute, denek sinatu behar dute (ohikoena da).

Dena den, oinordeko guztiak kontu korrante komun baten titularrak badira, nahikoa izango da haietako batek sinatzea 109H eredia denen izenean (hori gutxiagotan gertatzen da). Kasu horretan, «TST» laukia markatu beharko dute 109H ereduaren 4.2 atalean.

Herentzia jasogabe baten ordezkariak edo testamentu ahalordea erabili gabe duen herentzia baten ordezkariak aurkezten badu, ordezkari horrek bakarrik sinatuko du.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

5.2.- Zer gertatzen da oinordeko guztiek sinatzen ez badute?

Itzulketa sinatzaileei bakarrik egingo zaie, bakoitzari dagokion zatian.

Ezinezkoa izango da 109H eredua sinatu ez dutenei dagokien zatia itzultzea, aurreko 5.1 puntuan adierazitakoa izan ezik.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

5.3.- Beharrezkoa da harremanetarako pertsona bat eta telefono zenbaki bat eta/edo posta elektronikoa helbide bat jartzea? Zertarako erabiliko da?

Bai, oso garrantzitsua da itzulketa azkarrago egiteko.

Kasu hauetan bakarrik erabiliko da:

- 109H eredua ez badago zuzen beteta.
- Dokumenturen bat aurkeztu gabe badago.

Harremanetarako pertsonari deituz edo korreo elektronikoa bidaliz, hari erraz abisatu diezaiokegu, 109H eredua zuzendu edo falta den dokumentazioa aurkezteko.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

5.4.- Zer esan nahi dute 109H ereduaren 2. ataleko «H» eta «R» laukiak?

«H» laukiak herederoa esan nahi du.

«R» laukiak ordezkaria esan nahi du.

Eskatzaile bakoitzak H edo R laukiak markatu behar ditu, herederoa edo herentziaren ordezkaria bada.

Hildako baten PFEZaren itzulketa eskatzen baduzu eta oinordekoa bazara, «H» laukia markatu behar duzu. Herederoak eta zati alikuotaren legatu hartzaileak dira oinordekoak.

Dena den, hildakoaren PFEZa itzultzeko eskatzen baduzu eta herentzia jasogabearen ordezkaria edo testamendu ahalordea erabili gabe duen herentzia baten ordezkaria bazara, «R» laukia markatu behar duzu. Ordezkaria nor den jakiteko, irakurri 4.5 galdera.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

5.5.- Zer esan nahi du 109H ereduaren 4.2 ataleko «TST» laukiak?

«TST» laukiak «eskatzaile guztiak kontu korrante beraren titular direla esan nahi du.

Bakarrik markatu beharko da eskatzaile guztiak kontu korrante beraren titularrak direnean eta itzulketa kontu korrante horretan sartzea nahi dutenean.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

5.6.- Zer esan nahi du 109H ereduaren 4.2 ataleko «CCF» laukiak?

«CCF» laukiak «hildakoaren kontu korrontea» esan nahi du.

Bakarrik markatu beharko da itzulketa hildakoaren kontu korronte batean ordaintzeko eskatzen denean. Kontu korronte horrek ezingo du blokeatuta edo ezeztatuta egon.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

5.7.- Zer esan nahi du 109H ereduaren 4.2 ataleko «D» laukiak?

«D» laukiak «kontu korrontearen dokumentazioa» esan nahi du, eta kontu korrontearen dokumentazioa aurkezten den guztietan markatu behar da.

Zer dokumentazio aurkeztu behar den eta zer kasutan jakiteko, irakurri 6.2 galdera.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

5.8.- Zer esan nahi du 109H ereduaren ERANSKIN-eko «MT» laukiak?

«MT» laukiak «kontu korrontearen titular bera» esan nahi du.

Bakarrik markatu behar da kontu korrontearen titularra eta eskatzailea pertsona berberak direnean.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

5.9.- Zer esan nahi du 109H ereduaren ERANSKIN-eko «D» laukiak?

«D» laukiak «kontu korrontearen dokumentazioa» esan nahi du, eta kontu korrontearen dokumentazioa aurkezten den guztietan markatu behar da.

Zer dokumentazio aurkeztu behar den eta zer kasutan jakiteko, irakurri 6.2 galdera.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

6.- 109H ereduarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

6.1.- Zer dokumentazio aurkeztu behar da 109H ereduarekin batera?

Bi dokumentazio mota daude:

- Kontu korrontearen titulartasunari buruzko dokumentazioa, kontu korrontea berria denean bakarrik aurkeztuko dena (irakurri 6.2 galdera).
- Herentziari buruzko dokumentazioa, kasuen arabera aldatu daitekeena (irakurri 6.3 galdera eta ondorengoak).

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

6.2.- Abonua egitea nahi den kontu korrontea(k) berriak al d(ir)a?

Ez badira berriak (iaztik irekita daude), EZ da dokumentaziorik aurkeztu behar.

Berriak badira (uneko urtearen barruan ireki dira), agiri hauetako edozein aurkeztu beharko da:

- Kontu korrontearen zenbakia (IBANa) jasotzen duen libretaren fotokopia, eta kontuaren titularrak.
- Kontu korrontearen zenbakia (IBANa) jasotzen duen banku helbideratzeko ordainagiria, eta kontuaren titularrak.
- Kontu korrontearen zenbakia (IBANa) jasotzen duen finantza entitatearen inprimakia edo ziurtagiria, eta kontuaren titularrak.

Gainera, kontuak berriak badira, «D» laukia markatu beharko da 4.2 atalean edo 109H ereduaren ERANSKINEAN, behar denaren arabera, dokumentazio hori aurkeztu dela jasota uzteko. «D» laukiari buruzko informazio gehiago nahi bada, irakurri 5.7 edo 5.9 galdera.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

6.3.- Gipuzkoan aurkeztu al duzu oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren aitortpena (670 eredu)?

Erantzuna baiezkoa bada, ez duzu herentziari buruzko dokumentaziorik aurkeztu behar. 6.2 galderan aipatutako kontu korronte berriari buruzko dokumentazioa bakarrik aurkeztu beharko duzu, hala badagokio.

Erantzuna ezezkoa bada, berriz, irakurri 6.4 galdera.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

6.4.- Herentzia onartu edo banatzeko eskritura publikorik badago?

Erantzuna baiezkoa bada, herentzia onartu edo banatzeko eskritura publikoa aurkeztu beharko duzu.

Gainera, 6.2 galderan aipatutako kontu korronte berriari buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko duzu, hala badagokio.

Erantzuna ezezkoa bada, berriz, irakurri 6.5 galdera.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

6.5. Ba al dago testamenturik edo oinordetza itunik?

Erantzuna baiezkoa bada, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Testamentuaren edo oinordetza itunaren kopia.
- Azken nahien ziurtagiria.
- Gainera, beharrezkoa izango da 6.2 galderan aipatutako korronte berriaren dokumentazioa aurkeztea, hala badagokio.

Erantzuna ezezkoa bada, hiru agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Familia liburua, (edo Erregistro Zibileko erregistro elektronikoko indibidualaren ziurtagiria).

- Heriotza ziurtagiria, (edo Erregistro Zibileko erregistro elektronikoa indibidualaren ziurtagiria).
- Azken nahien ziurtagiria.
- Gainera, beharrezkoa izango da 6.2 galderan aipatutako korrante berriaren dokumentazioa aurkeztea, hala badagokio.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

7.- Hildako baten PFEZaren itzulketaren kobrantza.

7.1.- Nola jasotzen da hildako baten PFEZaren itzulketa?

Itzulketa edozein finantza entitatetako kontu korrante batean dirua sartuz bakarrik egiten da.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

7.2.- Eskatu al daiteke itzulketa hildakoaren kontu korrantean egitea?

Bai eskatu daiteke, baina hildakoaren kontu korrantea irekita eta blokeatu gabe dagoenean bakarrik; eta «CCF» laukia markatu beharko da eskaeraren 4.2 atalean.

Kontu korrantea blokeatuta edo ezeztatuta (itxita) badago, itzulketa gelditu egingo da. Beraz, oinordeko baten edo batzuen kontu korrantea adierazi beharko da.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

7.3.- Oinordeko guztiek kontu berbera erabil al dezakete, itzulketa kobratzeko?

Bai. Horretarako, 109H ereduaren 4.2 atala bete beharko dute.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

7.4.- Oinordeko bakoitzak derrigorrez kontu korrante desberdin batean kobratu behar al du?

Ez, ez da beharrezkoa.

Dena den, horrela egin nahi badute, 109H ereduaren ERANSKINA bere behar dute.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

7.5.- Oinordeko batek baimendu al dezake beste oinordeko baten kontuan kobratzea?

Bai.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

7.6.- Oinordekoek itzulketa ezkontide alargunak kobratzea nahi dute. Haren kontu korronte batean kobratu al dezakete?

Bai, baldin eta oinordeko guztiek hala baimentzen badute. Haren kontu korronte bat adierazi behar dute eskaeraren 4.2 atalean.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

7.7.- Oinordeko guztiek zati berdinetan kobratzen al dute?

Herederok herentzian dagokien portzentajearen arabera kobratzen dute.

1. adibidea:

A hildakoak hiru semeak zati berdinetan heredero izendatu zituen. Hiruek zati berdinetan kobratuko dute PFEZaren itzulketa (bakoitzak heren bat).

2. adibidea:

Hildako batek bere ezkontide alarguna eta hiru alabak heredero izendatu zituen.

Ezkontide alargunari herentziaren erdia (% 50) utzi zion, eta beste erdia alaben artean banatu zuen zati berdinetan (bakoitzari % 16,66).

PFEZaren itzulketa portzentaje horien arabera egingo da: % 50 ezkontide alargunari eta % 16,66 alaba bakoitzari.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)

7.8.- Zer gertatzen da oinordeko batek ez badu kontu korronte bat adierazten edo ez badu baimentzen bere zatia kontu korrontean sartzea?

Ezinezkoa izango da oinordeko horri dagokion zatia itzultzea.

[Itzuli galderen aurkibidera](#)